



Zure osasunerako,
emakume!



ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GABETIKO SAILA
Gizarte Gaitetako Saizakunordetza
Gizarte Lanbidekidearen Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y
ASUNTOS SOCIALES
Viceconsejería de Asuntos Sociales
Dirección de Cooperación al Desarrollo



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



Argitalpen hau Milurtekoko Garapen Helburuei buruzko 9 komikiz osatutako bilduma baten zati da. Gai honen inguruan sakondu nahi izanez gero bestelako material osagarria ere badugu (posterrak, mandalak, sakontzeko koadernoak...) eskaria gure bulegotan zein gure web orrian egin dezakezu.

■ Hezkuntza baliabideak ALBOAN

...

9. Milurtekoko garapen helburuak: Aldaketarako tresna edo garapen gaingabetua? (2008)
10. Lurra zoratuta dago! Soberan daukate eta badago iristen ez zaion pertsonarik. (2008)
11. Posible duzu komiki hau irakurtzea? (2008)
12. Emakumeok ere hegalaria. (2008)
13. Lurra: planeta arriskutusa haurtzaroarentzat. (2008)
14. Zure osasunerako, emakume! (2008)

Egilea: Itziar Villanueva Etxebarria

Argitaratzailea: **ALBOAN**

Itzulpena: Elhuyar

Lege-Zenbakia: Bi-1390-08

ISBN: 978-84-611-6677-0

Azalako diseinu: Marra, S.L.

Inprimaketa: Lankopi S.A.

Lan honen erreproduzio partziala baimentzen da, beti ere helburu komertzialik ez badu eta iturburu aipatzen baldin bada.

www.alboan.org

Iruñea

Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308
alboanna@alboan.org

Bilbo

Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo
Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

Donostia

Erronda kalea, 7, 4. Ezk. • 20001 Donostia
Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267
alboangi@alboan.org

DUELA HILABETE BATZUK, ESATEA ERABAKI NUEN.
ETXEAN DENAK LOTAN ZEUDELA, LAUGARREN
UMEAREN ZAIN NENGOELA AZALDU NION
MANUELI. BELDURREZ NENGOEN, TRISTERIK,
ETA ERRUDUN SENTITZEN NINTZEN.



GIZONAK ESAN ZIDAN:
"BIZITZA EZ DA BERRI
TXARRA; MOLDATUKO
GARA". LASAIXEAGO SENTITU
NINTZEN. GIZON ONA DA
MANUEL; ZORTEA IZAN DUT
HORRETAN. MARTA DUT IZENA,
ETA HOGEITA BI URTE DITUT,
GUTXI GORABEHERA.

HANDIK URTE-ERDIRA
HASI ZEN ANDREAREN ETA
GURE HERRIAREN ARTEKO
HARREMANA. URRUTI BIZI DA
ANDREA, EUROPAKO
BAZTERREN BATEAN.



GRADUONDO PRAKTIKAK "HEGOALDEKO"
HERRIALDEREN BATEAN EGIN BEHAR DITUGU.
ETA BEREHALA ABIATU BEHAR DUT...

NORA, BAINA?

LATINOAMERIKA ESKATU DUT,
HIZKUNTZAGATIK...

ZORAGARRI! ETA INGURUNE
TROPICALA BADA, ZU IKUSTERA
JOANGO GARA UDAN, HONDARTZARA, PALMONDO
ETA KOKONDOEN AZPIAN ETZATERA,
UR GARDENETAN BAINATZERA...

ZAUDE ISILIK, GIZONA,
BENETAN ARI DA ETA!

EZ
DIZUTE BELDURRIK
EMATEN GAIXOTASUN
TROPIKALEK? ETA
GERRILLAK? ETA
BAKARDADEAK...?

BAITA NI ERE! BERA, LANKIDE
BOLUNTARIO: GU, TURISTA,
TURISMOA ERE LABUNGARRI
ZAIO GARAPENARI!

NI,
JOATEKOTAN,
LEKU BERRIAK EZAGUTZERA JOANGO
NINTZATEKE... HIRU HILABETETAN
EZINGO DUZU EZER
EGIN ETA!

AGIAN... EZ DAKIT... BAINA DATORREN
OSTEGUNEAN ABIATUKO NAIZ!

7/2006



ONGI ETORRI! ANDREA
ZARA, EZTA?

NI MIGUEL NAIZ. MARTAK ETA BIKO KOORDINATZEN
DUGU HEMENGO LANA.

NI MARTA NAIZ.
HEMENDIK AURRERA, ZER
EGIN BEHAR DUZUN
AZALDUKO
DIZUT.

EZ HARTU KARGA
HANDIRIK, HAN EZ
DUZU ARROPA ASKORIK
BEHARKO ETA. BOTA
HORIEK, BAI, ONA DIRA.
HORIEK BEHARRA
IZANGO DUZU
EURIA HASTEN
DENEAN.

LOKAZTI GUZTIETAN SARTZEN ZITUEN BOTAK ANDREAK,
EURIA GOIAN BEHEAN HASI ZUEN ETA.

LEHENIK
ETA BEHIN, ONDO
ZABALDU BEGIAK ETA
BELARRIAK, ETA,
BADA EZPADA, ISILIK EGON

MANUEL NAIZ. LAGUNDUKO
DIZUT MOTXILA ERAMATEN

EZ, MILA
ESKER.

MARTAREN OINAK, ALDIZ,
HEGAKA BEZALA ZEBILTZAN...

HARRIEN ETA
LOKATZAREN GAINEAN.

NEOS







EMAKUMEON ANTOLAKUNTZARI
ESKER...


KONTSULTATEGI BAT ERAIKI DUGU
DENON ARTEAN. GURE KOMUNITATEAREN
OSASUN-SUSTATZAILE BATEK EGITEN DU
LAN HAN. DOHAINTZA GISARA IRISTEN DIREN
SENDAGAIAK EMATEN DIZKIGU, ETA GURE
SEME-ALABEI TXERTOAK JARTZEN DIZKIE.
BAINA EMAKUMEOK USTE DUGU EMAKUME
SUSTATZAILEAK BEHAR DIRELA. GUTAKO
ASKOK GAIORIK JARRAITZEN DUGU ETA
BIZKARREKO MINA IZATEN DUGU, EGURRA
ETA UMEAK GAINENERAMATEN DITUGU ETA

EZTUL EGITEN DUGU GAUEAN, ETA HOTZIK IZATEN DUGU
BIHOTZA. EMAKUME ASKO EGOTEN DIRA TRISTE SAMAR...
UME ASKO IZATEAK INDARRIK GABE UZTEN GAITU, ETA
EMAKUME ASKO HILTZEN DIRA ERDITZEAN. ASKO SUFRITZEN
DUGU. HORTXE DUZU LANERAKO AUKERA BAT: ZERGATIK EZ
DIZKIGUZU EMATEN OSASUN-IKASTAROAK EMAKUMEOI?



(IKASLE-PRAKTIKAK EGIN NITUEN OSPITALEA...)

KOMUNITATEKO KONTSULTATEGIAZ GAIN, MENDIKO OSPITALEA ERE ERAIKI ZEN DUELA BI URTE. HEMENDIK HIRU ORDURA DAGO, ZALDIZ.





MEDIKU
BERRIA DA?

DUELA HIRUZPALAU URTE,
OSO GIZON DOTOREAK ETORRI ZIREN
GURE KOMUNITATERA. HAURRENTZAKO
ESNE-ENPRESA BATEKOAK ZIREN. ESAN
ZIGUTEN BULARRA BAINO HOBEA ZELA
UMEENTZAKO ESNE HURA.
EMAKUME ASKOK UTZI GENION
BULARRA EMATEARI.

ELENAK ZORRIAK
KENTZEN DIZKIZUN BITARTEAN,
TALDEKO EMAKUMEEKIN UZTEN ZAITUT.
HORIEK EMANGO DIZUTE GURE
BIZIMODUAREN BERRI ZABALAGOA. NI,
BANOA, EGUR BILA, HEMENDIK GERTU
ZUHAITZ BAT EORITA DAGOELA ESAN
DIDATE ETA...

ARAZOAK GERO ETORRI ZIREN.
HASIERAN, OPARITU EGITEN ZIGUTEN
ESNEA, BAINA, GERO, BULARREKOA
ESNEA BUKATU ZITZAIGUNEAN, EROSI EGIN
BEHAR IZAN GENUEN. BAINA ARAZORIK LARRIENA
GURE HERRIETAKO URARENA ZEN,
EZ BAITA EDATEKO MODUKOA.
HORI ZELA ETA, ESNEA KUTSATU EGITEN ZEN.
HAURRAK GAIXOTU EGIN ZIREN, BAITA HIL ERE ASKO...

W66



ETA BULARRA
EMATEN DUGUN
BITARTEAN,
HAURDUN GERA
GAITEZKE?

BAI.

ETA ZER EGIN BEHAR
DUGU UME GEHAGO EZ
IZATEKO LEHENDIK
ERE ASKO
BADITUGU?

HORI DA
FAMILIA-PLANGINTZA
DEITZEN DIOZUN ZER
HORI, EZTA?

BAI. DATORREN
ASTEAN
MINTZATUKO GARA
HORRETAZ.
KONFORME?

HAURDUNALDIAN, OSO
ONA DA BIZKARRERAKO
"KATUAREN JARRERA"
DERITZONA, ARNASKETA
EGOKIAREKIN BATERA
EGITEN BADA...


KATUA!

UMEA!
ZATOZ HONA!

WEO

LASTER OHARTU ZEN BADELA SAKONAGOKO BESTE OINAZE BAT, EZ TREBAKUNTZAK EZ SENDAGAIK KENTZEN EZ DUTENA. BIDEGABEKERIAK SORTZEN DUEN OINAZEA DA, INDARKERIA ERAGITEN DUEN BIDEGABEKERIA BERAK.

GATAZKA HASI ZENETIK
"INTENSITATE TXIKIKO GERRA"
ERE ESATEN DIOTE, ARMAK MINTZATU
ETA EMAKUMEAK ISILDU EBIN DIRA,
SUFRIMENDUZ BETERIK. OINAZE- ETA
GORROTO-ZAMA HANDIA HARTU ZUEN
EMAKUME BAKOITZAK BERE
BIZKAR GAINEAN.




SOLDADUAK ETORRI ZIRENEAN, PROSTITUZIOARI
EKIN ZIOTEN EMAKUME BATZUEK, POBREZIA
UXATU NAHIRIK. BAKARDADEA ETA
BELDURRA AURKITU ZITUZTEN.

BESTE BATZUEK MENDIRA
JO ZUTEN, EZKUTUAN,
GERRILLARIEKIN.

BESTE BATZUK -SOLDADUEN EMAZTEAK-
GERRARA JOATEN IKUSI ZITUZTEN GIZONAK,
ETA HAIEN ZAIN GERATU ZIREN.

SOLDADU IZAN
NAHI DUT NIK!

AITATXOREKIN
JOAN NAHI
DUT NIK!




HORREKIN BATERA, GAIXOTASUNAK ETA BANAKETA ETORRI ZIREN.

ISTORIOAREN BESTE ALDERDI HONETAZ EZ NAIZ ONDO OROITZEN...
GOGOAN DUT EGUR BILA JOAN NINTZELA, MARIA AHIZPAREKIN...



GOGOAN DITUT HAUR-MINAK, GOGORRAK,
AURREKOENTAN EZ BEZALAKOAK.



BADATOR,
MARTA?

EZINEZKOA
DA, MARIA.
GOIZEGI DA
ORAINDIK...

10

GERO, ODOL-JARIOA HASI ZITZ AidAN
ETA KONORTEA GALDU NUEN.
EGURARREN GAINEAN ETZANDA
GERATU NINTZEN.



ZIZTU BIZIAN ABIATU ZEN MARIA
OSASUN-SUSTATZAILEAREN
ETA HERRIKO GIZONEN BILA...

MARTA!
BASOAN DAGO!
LAGUNTZA BEHAR
DU!



2012/06

BEREHALA ZIREN
DENAK NIRE INGURUAN.

ZEHARKA DAGO
MARTAREN UMEA.
HAUR-MINAK DITU AMAK...

BEREHALA
ERAMAN BEHAR
DUGU MENDIKO
OSPITALERA!

BAINA BI ORDU
FALTA DIRA ORAINDIK
KAMIOIA IRISTEKO...
ETA ODOL ASKO ARI DA
GALTZEN NIRE
AHIZPA!

ZERTARAKO
BALIO DU, BADA,
IKASI DUDAN
GUZTIAK, EZ
BADAGO EZ
EKOGRAFORIK,
EZ...?

ANDREA,
HIL EGINCO
DA MARTA?

EZ,
MAITIA.

BIEN BITARTEAN, KONTSULTA-
TEGIRA ERAMAN NINDUTEN.

UMEARI SABELEAN BUELTA
EMATEN SAIATU ZEN
OSASUN-SUSTATZAILEA,
UMEA ETA KARENA ATERA
ETA ODOL-ISURIA
GERARAZTEKO. BENETAN
LUZE EGINCO ZITZAIEN
KANPOAN ZAIN ZEUDENEI.

BEREHALA JARRI ZEN MARTXAN KOMUNITATE OSOA. HIRU GIZONEK ZALDI AK EKARRI ZITUZTEN, NI BIDERA ATERA ETA OSPITALERA ERAMATEKO.

EMAKUME BATZUK ARDURATU ZIREN GURE HIRU SEME-ALABEZ.

ZATOZ, POLITA.

AMATXOOO!


BESTE BATZUEK JANARIA EKARRI ZUTEN, UR IRAKINA, ZAPI GARBIAK...

ORAIN, IRTETEKO PREST DAGO UMEA. UNE BATETIK BESTERA ATERAKO DA. EMAGINA, ANDREA... ZATOZTE NIREKIN. UMEA JAI OORDUKO, OSPITALERA ERAMANGO DUGU MARTA...

AZKENIK, JAI O ZEN UMEA. HILDA ZEGOEN. SUSTATZAILEAREN HITZEK HAUTSI ZUTEN HASIERAKO ISILTASUN TRISTE HURA: BEHARBADA, NIRE BIZIA SALBATZEA BAZEGOEN.

JP

HANDIK BI ORDURA...



ATERA DUGU GERATZEN ZEN KARENA. ODOL-JARIOA GELDITZEN ARI DA. ODOL IZUGARRI GALDU DU EMAKUME HONEK, ETA OSO AHUL DAGO. HIRIRA ERAMAN BEHAR GENUKE, TRANSFUSIOA EGIN DIEZAIOTEN. BAINA, HAIN AHUL EGONIK, BELDUR NAIZ EZ OTE DEN BIZIRIK IRITSIKO...

EZ DAGO ODOL-BANKURIK HEMEN?

GAUEAN, BERRIRO ERE BIDEARI HELDU GENION, EURIRIK GABE ORAINGOAN.

BAINA... JENDEA BADAGO, KOMUNITATEA! EZIN DUGU ODOLIK EMAN GUK?

BAI. BAINA BATERASARRIA IZAN BEHAR DU HARTZAILEAREN ODOLAREKIN

BOLUNTARIOAK ETORRIKO DIRA. IKUSIKO DUZU.

BERRIRO ERE KOMUNITATERAKO BIDEA HARTU ZUTEN MALENAK EMAGINA ETA NIRE AHIZPAK.

AZKAR IBILI, MALENA.

ORDU GUTXIREN BURUAN, BOLUNTARIO ASKO INGURATU ZIREN ODOLA EMATERA.



MARTAGATIK, EDOZER EGINO NUKE. HAINBESTE EGIN DU BERAK HERRIKO EMAKUMEEN ALDE...!

ODOL-TALDEEN BATERAGARRITASUNA ZEHAZTEKO METODOAK DUELA 50 URTE GURE HERRIALDEAN ERABILTZEN ZIRENAK DIRA...

ETA MIKROSKOPIOA... AUSKALO NOIZKOA DEN!



BAINA... INORK EZ DAKI ZER ODOL-TALDE TAKOAK DEN!

GORABEHERA GEHAGORIK EZ BADA SORTZEN... MIRARIA.

BIHARAMUNEAN...

BERRI POZGARRIAK DAKARTZAT: NANBARMEN EGIN DU HOBERA MARTAK. ARRISKUTIK KANPO DAGOELA USTE DUGU, ETA HOBERA ARI DA.



HERRITARREN ELKARTASUNAK ETA ERABAKIAK HORREN AZKAR HARTU IZANAK EKARRI DU MIRARIA.

MANUELEK, AZKENIK, BARNE-TENTSIOA KANPORATU ETA NEGAR EGIN ZUEN. MARIA ETA GAINERAKOEKIN UTZI NINDUEN, ETA ARGIA IKUSI GABE HILDAKO SEMETXOA EHORZTERA JOAN ZEN.



BAINA AMATXO ONDO DAGO, EZTA?

AITATXO!

NEof

HERRIRA ITZULI NINTZENEAN, OSO POZIK ZEBILEN JENDEA. GAU HORRETAN, DANTZA ETA MARINBA-SOINUA EGON ZEN, BIZIAREN GARAI PENA OSPATZEKO.




GORA MARTA

GORA OSASUN-SUSTATZAILEAK!

GORA EMAKUMEOKI

ANDREAK KONTATU ZIDANEZ, MEZU ELEKTRONIKOAK BIDALI ZIZKIEN BERE LAGUNEI HIRITIK...



ADISKIDE MAITEOK:
 IZUGARRI PENAGARRIA DA INGURUNE HONETAKO OSASUN-EGOERA. DENETIK BEHAR DUTE HERRITARREK. ERDITZEAN HILTZEN DIREN AMA ETA HAURREN PROPORTZIOA, BERRIZ, NEURRIZ KANPOKOA DA. ZER EDO ZER EGIN BEHARRA DAGO! HERRITARREN ELKARTASUNA IKUSIRIK, IKASTEN ARI NAIZEN GUZTIA ZUENGANATU NAHI NUKE, ETA IDEIA BATZUK AZALDU

JARRAITUKO DU

NR06

